

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

149n. Zenbakia Otsailla  
Zezeilla  
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**AITA JOSE ANTONIO GOIRIA  
"TXANTON"**

- LEKAIDE KARMELDARRA
- ABERTZALE ZINTZOA
- IDAZLE TREBE TA ARGIA

G. B.

## ARAZOA

# IDAZLEAK URRITZEN

ZER'en zenbakí onetan goibeltasun aundíz gogoratzen dogun lez, oraínsu joan jaku Txanto Goíria gure ídazlea.

Txanton'ek, GOIRIA ízenagaz idaz-lan asko argítaratu dauz gure aldizkarían, batzutan itz lauz eta beste batzutan bertsoz. Bere bertsoak edo olerkiák, gaiñera beti izan dira laburrak eta mamínsuak.

Baíña bere ordua eldu jako eta joan jaku.

Jazoera ori dala-ta, irakurleá gauza bí esan naí dautseguz, ZER onen zuzendarí lez eta bíotz-biotzera. Lenengoa, oraínsuko ídazle batzuk, ZER'en idazle ízan díranak, gogoratzeke eta gero, idazleen urritasuna sortzen dauskun egoerea agertzeke.

\*

Aldi labur baten ZER'eko ídazle asko íl dira. Bat baíño geiago aitzuko jatazela jakiñík, ona emen batzuren ízenak.

**Anton Landajuela**, idazlea ta ídazkolako laguntzaille zíntzoa, Euskerazaleak alkarteko alkarkíde bizia. Bere lan labur eta argíak euskerearen arazoak argítzeke ízaten ziran geíenak.

**Manuel Estonba** Urkiola'ko abadea. Illero idaz-lan bí idazten ebazan gure aldizkarirako bata kondairar-lokoa eta ípuíña bestea. Idazlan ederrak zíran, benetan irakurgarriák.

**BASAJAUN'ek** illero ídazten eban zerbaít, geíenetan mendígoízaleen arazoak eta jokabideak agertzeke. Bere lanak bereziák zíran, ídazkera bereziá eukan, baíña utsune bat itzi dau gure aldizkarían eta berak jorratzen eban arloan.

**Sabin Muniategi** bertsolarí ta olerkaria. Oraín be agertzen díra gure ZER onetan bertsoak eta olerkiák, baíña así gara Sabín'ek ítzi eban utsunea ikusten.

**Klaudio Gallastegi** idazle ugaría be joan jakun. Bere gaiák geíenean erlejíño-girokoak ízaten ziran eta olerkiák be egiten ebazan. Isiltasuna ítzi dau bere ondoren.

\*

Errez ulertzeke gauzea da ainbeste idazle on eta ugarí joan ezkeru, artzen doguzan idaz-lanak asko urritu izatea.

Geratu dan utsune ori beteteko bíde bi artu doguz, Euskal-Astea eta Ipuín sariketa.

Euskal-Asteak bost zenbakíren erdía edo geiago beteteko beste emoten dau eta Ipuín sariketak ez ainbeste baíña ípuín sarítuak argítaratzek orretarako balío dauku.

Dana dala, ídaz-lan asko bear díra illero amazortzí orrialde beteteko. Orregaitik, bizkaieraz ídazten daben ídazle guztiaí deí egíten dautsegu, zorrotzu dagíezala euren ídaz-lumak eta así daitezela íllero lanak bialtzen. Badaukaguz oraindíño íllero zíntzo-zíntzo ídazten dabenak baíña ez naiko.

Geiago barik ba, zuen lanaí zain geratzen gara.

EUSKERAZALEAK

### OARRA

Arpídedun guztiaí deí egíten dautsegu. Bíaldu dagíela urteko arpídetza, 1.000 pezeta. Bíaltzeke erarík onena txekea dala uste dogu. Artu zuen kontu idegíko txarteltegía, ípiñí an EUSKERAZALEAK ízena, sartu karta-azal baten eta bíaldu Colon de Larreategi 14.2. <sup>a</sup> eskoía, 48001 Bílbaio zuzenbidera. Esaten dogun au Bílbo'tík kanpoan bíz díranentzat da geien bat.

Eskerrík asko.

EUSKERAZALEAK

# PERSITARREN UR-KOLKOAN GUDA

Guda-zaratak guda biurtu jakuz eta Persitarren Ur-Kolkoan guda bildugarria daukagu. Zori txarrez ez da gauza erreza munduko gizonak alkarragaz bakean bizitzea. Munduko II GUDA oraindiño aitzu berik, arrezkero be guda mingarriak izan dirala, Bietnam'ekoa esaterako, Irak-Iran gudaren ondorenak bizi-bizi begien aurrean agiri zirala, ona emen beste guda bat.

Europa'ko sortaldean otzeko gudaketa kendutzat agertu, Berlin'eko ormea eratsi eta ille batzuk ona emen beste guda-giro bat, gudea amaitzen danean be ondorenak itziko dauzan giroa.

Arabiarrak alkanagaz ondo konpontzen ikusiko bagenduz, enda-arteko gudea zala esan zeitekean, baiña eurak be, zori txarrez, alkarren aurka diardue naizta guztiak batera Israel'en arerio lez agertu.

## Gero zer?

Egun batzuk edo ille batzuk barru amaituko da guda au eta zelako edo alako bakea izango da, baiña etorkizunari begira, laster sortuko da beste guda bat.

Antza dagoanez, arabiarrek guda au galtzen ba'da-be, bai eurak eta bai Irugarren Munduko beste Laterri batzuk, euren barruan samintasunezko egoera au aurkituko dabe: Aberatsak irabazi dabe eta txiroak zapalduta geratu gara.

Eta egoera ori oso lergarria litzake. Laterri txiro orreik beti geratuko dira zain euren indarrak noiz sendotuko diran, barriro guda egin eta aberats zapaltzailleen mundua noiz zapuztu al izango ete daben.

Mundua egon-eziña dan oreka larrian geratuko da.

## Bakea nondik?

Munduko bakea lortzeko ez dago bide bakar bat baiño: Erri atzeratuak aurreratzea, eta ori lortzen dan artean, ondasunak zuzentasunaz banatzea.

Gaur berton, guda larri onetan eralgiten diran dirutza izugarriak errien aurrerapenerako erabiliko ba-lira, bakerako bide luze bat egingo litzake, baiña gudaren ondoren lez, atzerakuntza izango da munduan.

Ez da ba naikoa ondasunak ateratea, ez da naikoa laterri aberatsak aberatsago biurtzea. Ori bakearen aurka arriskugarri biurtzen da, ondasun orreik bear dan lez banatzen ez ba'dira eta atzeratuta dagozan aberriak aurreratzen ez ba'dira.

## Giza-legea

Guda au egiteko errazoia, Kubait eta Irak'en artean giza-legezko giroa sortzea da, indarraren errazoiak ez dagiala zapaldu errazoiaren indarra. Eta oiñarri on bat da olako iztillurik geiago sortu ez daiten. Eta orretarako batera dagoz munduko laterriak geienak. Baiña ez begie aitzu Iparralde ta Egoaldearen artean dagoan arazoa, biztanlez ain ugaria dan Irugarren Munduaren egoera luzatu-eziña.

Errien aurrerapena edo Populorum Progressio eritxon idazki oargarri aretan argi esaten eban VI Paulo Aita Santuak, munduko aberri guztiak, bardintasunean alkartuta, bakoitxak bere jakintza aurkeztu bear ebala, guztiak alkar aberastuz mundu obegoa sortzeko. Bide orretatik doa gaurko mundua, baiña ez ete doa astiroegi?

Betor bakea mundura eta barriak emoteko bideak, esaterako, ain ederto aurreratu diran lez, une baten mundu guztiko barri-emoilleak bakoitxak bere lekutik berba egiten daben lez, alkarren arteko bizitza egokira garoetan bideak be indartu daitezela.

Izango al da guda ikaragarri au munduan izan dan azkenengo guda eta ikasi dagigula gizonok alkarragaz bakean biziten.

Bake-egilleak izan gaitzean.

---

# AITA JOSE ANTONIO GOIRIA

## (1908-1990)

---

Jainkoak egiña oro eder. Eta Jainkoak egin orreitan, bizitzea bai eder! Banakak ba-dira, orraitino, zentzuna galduta edo, biziaren doai bikaina aintzat artzen ez dabena eta olako griña kaltegarri lorrindu oí dabena. Baita ba-dira, naizta zorionez gure artean ez ainbeste, bizitzaz asperturik, eriotzeari ordua baiño leen oparia emon nai dautsenak.

Aita Goiria etzan olakoa. Nozai erakutsi oí eban Bizi-naia. Azken urteotan izan zituan, bere atsegin jakon motoan ibiliz, eta urteak ez parkatzen, bere ezbear eta íxtripuak, baiña bizi gureak bultz-eragiñik, aurrera joian. Gorputzak ez dau errez "naiko" esaten.

Aita Goiriak maite eban bizia, maite eban lurra, edertasunez betea; maite eban bere jaiotz-erria, apaín, sotil, bizia. Zerua eder, baiña Jainkoak euskaldunoi emondako lurra, ezin ohea.; eta ez eutson beroni agur esan nai. Laztan ak itxasoa, ur-gaiñ dizditsuz naiz orroa zorotan; laztan ak lur-barrua, euskal lurra mendi, arkaitz, zugatz, íbai, pízi ta txori kantari; laztan ak euskal gizona bere lurrean langille... Ez, ez eban euskal lurra laga nai. Bizi nai, bizi nai!

Goiaren otsa danean, baiña, gure garrasiak, onak izanda be, lei ta biziak, porrot eginda geratzen... Eta gizona bere ezerezean eta emakumea bere aundi-naian, espirituaren erreñura doakígu, ezertxo be esan bage, agurrík ere ez; ezta itxasoz doanak lez esku-kíñuz beinik bein, azken kiñurik bez. Ezkuta, ta kítu! Or geratzen jatzu dana míñetan.

Aita Txanton, urte luzez Eibar'en bizi izana, bertan eta inguruetan ondo ezaguna, orrelaxe joan zan 1990 ko abenduaren 16'an. Etzan íxtripuz il, erio maltzurak ixil-ixil aldatua baiño, Gasteiz'ko karmeldar gaixotegian aurkitzen zalarik. Etoiak kiñu ílkorrez dei egifiik, berarekin eroan euskun.

Urrengo egunean, Eibar'en egin geuntsozan illetak bertoko karmeldar eleiz barri apaíñean; altaran meza emoille, praille apaiz ugari eta kristau eleiztarrez ondo betea. Arimak, maite díranak, errez alkartzen jatzuz oititz aldian barne opari ixil sotillean. Agur, Txanton!

### Bizitza

Zornotza'tik Erletxetara goazala or Kortederra lurralde zabal egokía, Zornotza ta Galdakao mosuka. Emen-

txe munduratu zan Goiria 1908'ko urrillaren 25'an, Gomuzio deritxon auzunean. Berau dogu, bederatzí seme-alabetatik, Goiria-Muniozguren sendian, zaarrena. Gorputzez azi ta sendotuz joiala, arimaz be eskolatu nairik, zortzi urte ebazala, Larrako karmeldar Ikastetxeratu zan, 12 urtekin karmeldar izateko gogoa erakutsiz. Lenengo ikasketak gogoz egin ondoren 1924'ko garillaren 7'an artu eban karmeldar abitua, urrengo urtean garillaren 8'an profesa egiñik.

Ondoren Markina'n, Gasteiz'en eta Begoña'n ikasle, Asketika, Filosofia ta Teologia ikasten, urte bi. Erregea beera, Errepublikara gora; nastea ugari, etorkizun ílluna; gaztez beterik dagoz komentua. Zer burutu artegatasun orretan? Nagusiak urduri. Gureak, beste ordenetakoak lez, gazte ikasle mordo batzuk Ameriketara, Txile'ra ta Kolonbia'ra bialtzea erabagi eben, an egiteko eukezan eskolak amaitzeko aukera izan egiñ.

Aita Txanton'ek Kolonbia'n osotu zituan be ikasleteak; Medellín'en mezakotu zan 1938'ko urtarrillaren 29'an. Etzan geldi egon. Nagusiak bertatik Frontino'ra bialdu eban, Uramita erritxoan parroktua egiñaz urte bitan; gero; íru urte Bogota'n egin ondoren, Medellín'en egotaldi bat Praga'ko Ume Jesus'en eta Teresatxo Deunaren kofradiak indartzen. Gar bizia erakutsi eban beti ango kofradiak eratu eta sustatzen. Azkenez Frontina'ko nagusi ta txauburu izan zan.

Kolonbia'n ainbat urte igaro ondoren, Euskalerrira itzulirik, emengo konbentuetan be, - aspertu bako lana egin izan dau Aita Goiria. Bere eriotzararte. Larrea'n egin ebazan urte bi, Begoña'n zazpi eta ia ogei ta amabi Eibar'en. Gaztedia zuzendu eban Begoña'n; "Gaztedia" deritxon dantza-taldea sortu eban; Eibar'en Karmengo Amaren Kofradia ta Teresatxo Deunaren taldea bere kontura egon ziran. Beti arima-zaintza lanean errime.

### Euskal idazle

Umetatik ekian euskera lantzen beti alegindu izan zan. Eta erbeste zear eta arazo askotan sarturik bizi izan arren, atsegin jakon idaztea. Erriz erri izlarí porrokatu íbilli ostean, etxeratzen zanean, laster ekarren luma euskeraz zer bait idazteko. Ortik ainbat aldizkaritan agertzen diran bere lanak.

"Euskal-Esnalea"-an daukazuz aren lenengo saioak. Gero Ameriketara joan aurretik, "Euzkadi" egunero-koan eta "Karmen go Argía"-n datoz Goiria'tarraren lanak; Kolonbia'tik eten barik idazten eban. Il aurreko urteetan, beste gauza askoren artean, bere idatziak zirala-ta, onela esaten eustan: "Nire lanetatik berezienak iru ízan díra "Danetako ítzaldiak, Anaidiak eta euskera. Sei idazti argítaldú dodaz eta beste sei ba-dadaz argítaldú barik, baiña eginda. Iru urtetan itz egin neban "ARRA! TE" irratian. Dana euskeraz, astero ordu erdi".

Liburu oneik argitaratu euskuzan: 1) *Baladin Berri-  
txoaren Bizitza*; 2) *Karmen go Eskapularioa*; 3) *Fatima-  
'ko Ama*; 4) *Goi-bidez* (Gogo-jardunak, Bilbao, 1968),  
423 orrialde; 5) *Kristoren Eliza* (Bilbao, 1971), 259 orrial-  
de. Nik itzaurrean: "Ez gara bakarrik bizi, gízarte aun-  
dia osotzen dogu. Lurrari erantsirik bizi gara, baiña  
gízarte barruan. Munduan eta munduagaz. Berez da  
gizona gízarteko. Ta aske ba da be, gízarte osoaren ona  
ta askatasuna billatu ta eragin bear ditu". Aita Goiria-  
ren liburuaren mamiña goratuz niñoa au.

Maíte doguna oparo azaltzen. Gurariz naiz egitez.  
Aurrera eroaten.

### Olerkari

Edegí euskal literatura, eta laster dakuskezu gure  
idazle gazteen artean itz-neurtuz be lantxo gozoak begi-  
zizatzen. "Karmengo Argía"-n datoz Aita Goiria'aren  
lenengo poesiak; gero Kolonbia'tik bialtzen ditu, eta ez

banaka, naikoa sarri baiño. Bere sorterritik urrun, tau-  
pada biziz dardaratzen jakon biótza eta zelan edo alan  
azaskatu egin bear, eta olerkítxoetan errez eta polito  
datoz olako estrofa arin graziz eiotuak. Ikus "Olerti",  
"Agur", "Zer", batez be. Bizkaí-erazko aldizkari ia baka-  
rra dan onetan, azkeneraiño jardun eban idazten. Lan  
labur eta jakingarriak. Itz lauz eta bertsoz.

Ona adibidez, 1984'an, ZER'en, 75 zenbakian argíta-  
ratutako "Maitasun-egarria" deritxon I2 estrofakotik bí:

"Maitasun ona, garbi-txukuna,  
jaungoikozkoa nik daukadana;  
Jainkoarentzat bakarrik nai dau  
nire biotzak maitasun dana".

Jainko bílla dabíl, mítxeleta argí bílla lez. Bíotzak  
dirautso ba-dala zer bat, zoragarria, kanpo ta barru  
daukaguzan gauza guztion egillea. Onen bílla nekatu  
barik saiatzen. Egoak jaso nai arrano egazcan, laiño ta  
zeruak baiño gorago. Eta adimenari ta amesari askata-  
sun osoa emonik, bílla doa urdurí.

"Nai-ta ezín dau, gorago íñola,  
ezin goratu bere egoak;  
Maiteak Berak urratu bear  
lotuta dauken kate sendoak".

Ona Aita Goiria, zornotzar zintzo, karmeldar langi-  
lle, urtearen amaikeran joan jakuna. Ikasbide ízanbeki-  
gu bere bízitza.

AITA ONAINDIA

---

### IPUIN-SARIKETA

---

Epai-maiak egin dau bere batzarra eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IPUIN-SARIKETA'ko sariak banatu díra

- 1.º Saria: GOIKOETXEA'tar IÑAKI
- 2n. Saria: ARRINDA'tar ANES
- 3n. Saria: BERGARETXE'tar JON JOSEBA
- 4n. Saria: ALZOLA TA BARAINKA'tar ELIXE

Ipuin sarituak urrengo zenbakietan agertuko díra.

EUSKERAZALEAK

## EUSKALDUNAK ETA BALEA

### I

#### EUSKALDUNAK ETA BALEA

Lekeitio'ko Udaletxean, enparantzara begira, auxe egoan idatzita:

Reges debellavit  
Horrenda cete subjecit  
Terra marique  
Potens Lequeitio.

Amaika urteekin asi nintzan, an bertan, latina ikas ten eta latinak in batera ikasi neban berba afek zer esan nai eben: Reges debellavit, erregeak burrukatu ebazan; Horrenda cete subjecit, bale ikaragarriak, menperatu ebazan; Terra marique, legorrez eta itxasoz; Potens Lekeitio, indartsu Lekeitio.

Baina, ondarrutarrek, bekaitzez edo, aizkeneko berba aiek Terra marique potens Lekeitio, onela itzultzen ebezen: Por mar y tierra potes en Lekeitio.

Bazan Arranegi kaleko enparantza txikian iturri bat eta goikaldetik bale baten irudia eukan eta berau atrapateko leian ebillen trañeru batena ere bai. Kostaldeko erri euskaldun askoren ikurra zan ori berori: Lekeitio'n bezela Ondarru eta Bermio'n, Mutriku eta Getaria'n, Zarautz eta Odarribia'n... Erri oientzako garrantzirik aundiena baleak euki eban, bestela ez eben balerik euren ikurrin bezela artuko.

\* \* \*

Emen agertzen zan balearen izena Eubalaena Glacialis da: Izotzetako Balea; baina aurretik beste deikera au ere euki eban: Balaena Bizkayensis edo Bizkaiko Balea, izotzetatik Bizkaiko Kolkora etorten zalako goialdeko itxasoak gortzen ziranean.

Negua izaten zan Euskalerrian. Orregaitik talaferoak eukiten ebezen portu guztietan Azillaren 15'tetik Martzoaren 15'ra balea bistatzen zanean seinaleak egiteko. Kea erabiltzen eben seinaletarako eta kearekin batera izara zuria balea ba'zan eta makilla utsik, bestelakoak ba'ziran, diote Lekeitio'ko Kofradia Aginduak: "...reconocer y distinguir los peces como ballenas, gíbarres, trompas y demás... y assi dístinguiendo alze en el monte y parage... las respectivas señales de vanderá blanca o sábana y esto se atenderá de vallena y palo seco para gíbarres y trompas..."

Bale urdina da balerik aundiena. Bizidun izakietatik, bera aundiena. Baina, geurera etorten zan bale buru-kakodunak ere balio aundia eukan. Eun milla kilo-

koak ere izaten ziran. Gaur egun galbidean dago; baita bale urdina bera ere.

Orrelako animali batek lanpostu eta ogibide asko sortzen ebezan: zatiketak egin, labeetara karriatu, koipeak urtu, barrillak egin, Europan zear koipeak zabaldu... Garai batean, Paris'eko kaleak ere koipe orrek in argitzen ziran.

\* \* \*

Bale-arrantza iru illebetekoa zan, baina gure kaietan urte osoan zear arrain-mota asko atrapatzen ebezen. Neguan bertan ere, bixigu ugari artzen eben. Bixigua aztuta dabiltza arrantzaleak orain; ni gastetxo nintzanian, ordea, Lekeitio'n egunero irteten eben bixigutan. Arranegi kalean bizi nintzan, lenengo zenbakiaren lenengo bizitzan. Irugarrenean arrantzale bat ere bai eta domeketan, goizeko irurak aldian, Kofradia baldutako neska bar agertzen zan eta, iru aldiz beeko atea joaz, onela deadar egiten eban kantari:

"i Sabiño, Jainkoaren izenean mezia entzuteko!"

Andik minutu batzuetara an sentitzen nebazan Sabiño'ren egurrezko txankloak eskillereetan beera taka, taka, taka... Gero kalean, eliza aldera. Arratsaldez kaian agertzen ziranean, an egoten gihan danok itxas-ontziak begira zenbat bixigu ekarten... eta arrantzale bakoitzak bixigurik ederrena etxerako.

—Etxerako? (Esate eban nere amuma Pillipa dendariak). Tabernetan eurok, zantarrok, jateko bai. An egongo dira emaztea eta seme-alabak goserik etxean...

Dendaria izanik, neure amuma Pillipak etxe askotako berria jakiten eban eta garai aietan, 1923'an, atunetako txalopa aundiak baztatuta egozan molla txokotan eta baporak asita; baina, txikiak eta gutxi. Etxeetan 'terrala' egoan. Baina, a zan tabernetako edertasuna: kanpotik begiratu eta barruan ez zan ezer ikusten bixiguen kearen-keaz. Sutegiak txikiak ziran egur-ikatzez tximiñi-gabeak eta keak irteten eban, geienak beintzat, tabernako atetik.

Bixigu bana, ederrena, bakoitzak aukeratuta, jasotzen ebezan arrantzaleek; baina, bada orain lareun urteko paper-ageri bat, eztabaida baten ondorengoa, eta bertan esaten digute Lekeitio'ko arrantzaleak, bixigutan ebilla, sei bixigu jasotzen eba7ala bakoitzak, 1536'garren urtean.

Bixigua aberatsa zan. Deba'n gaur ez porturik, ez arrantzalerik ez egon arren, garai batean, Deba'tik bixigu eskabetxatuak bialtzen ebezen Kastilla aldera.

Bixigua neguko arrantzua dogu; urte osoan, ordea; egiten eben arrantzan gure portuetan. Baiña, ez iturrietan, ez udaletxeetan, ez dago ez bixigurik ez bestelako arraiñik. Baiña, balea bai.

## Estropadak

Tala, talaia edo atalaiariak ez duen erririk ez da itxas-ertzeko Euskalerrian. Baleak gorputz aundia duelako eta sudurretatik ura botatzen dabelako, ikusten erreza da itxasoan. Eta lenen ikusteak baeban bere komenentzia portuarentzat.

Zergaitik?

Balea lenengo arpoiarena izaten zalako. Lenengo arpoia sartzen eban txalopak eruatzen eban balea bere portura. Eta balea oso aberatsa izaki. Orregaitik ez da arritzeko portu bakoitzean talaia eta talaiero bat egotea, balea itxasoan agertzen zanean, berri ori lenbailen emoteko.

Eta orduan asten ziran benetako estropadak. Talaiako seiñalea ikusi orduko, asiko ziran deika Kofradiako kanpaiak, etenik gabeko tulin-talan batean. Baita pregoiak ere kalerik kale, kantoi guztietan. Erritarrak berberak be erriko txoko guztietara eramango eben berri pozgarri ori. Ikusitako balea arin arrapatzea konbeni, auzoko portuen ontziera aurrea artuaz.

Zenbat eta txalupa geiago eta bizkorrago prestatu, oba balea portura ekarteko. Itxasotik bizi ziran eta eguneroko alojera arraiñetatik jasoten eben: bixigutik, lebatzetik, sardiñetik, itxas-aingeratik... Baiña, onek guztiok, arrain txikiak ziran, kalderilla utsa; balea, ordea, arrain aundia zan eta urregorriz beteta etorren.

Kofradiako ouia entzun orduko, etxe guztietatik arin-aringa urteten eben mutil gazteak eta gizon gordiñak, bakoitzak bere tresnak bizkarrean, portura, txalupak gertatzera. Ainbeste egunez eta ainbeste aste osoz itxarotako unea eta garaia eldu da. Erriotzarekin burruka egitera, alojera ederraren itxaropenean. Ausardia bekokian eta sua begietan, an doaz balearen bila. Etxean gelditzen dan ama xaarrak egingo dau Joannes de Etxeberry idazleak dakarren otoitza (1.627):

" O jaun Tobias gaztea ongi begiratua, guardaritzat bidalduzik Arkangelu Saindua, eta kostara arraiña erakarrazia, aren iltzeko egiten ziñoela grazia. Guri ere ekarguzu urbillera Balea, segurkiago armaren landatzeko kolpea. Biziazen gatik dugu arriskatzen bizia, arren egiguzu aren gelditzeko grazia "

Erriko jendea itxas-ertzerara doa estropada eta ondorengo txalupa eta balearen arteko burrukak ikustera. Estropada ez dabe erriko txalupak bakarrik jokatzeko; auzoko portuetakoek ere bai. Bermio'n ikusten zan

balea, Elantxobe'n ere ikusiko eben eta, bear ba'da, Lekeitio'n ere bai.

Txalupak era guztietakoak ziran, naiz trañneru eta naiz batel. Kaian egozan guztiak irtetzen eben bale-billa, baiña egokienak zortzi gizonen osatzen ebezan: sei arraunlari tostartean, popan patroia lema luze bategaz eta brancan arpoilaria arpoia eskuetan. Zazpi ere izaten ziran gizonok eta artan arpoilariak ere arraunean egiten eban, balearen ondora inguratu arte. Eta an, arrauna laga eta arpoia artun.

Txalupak, bata bestearen ondoren, abaniko baten antzera zabaltzen dira itxasoan, balea erdian atrapatuko. Lenengo gerturatzeko irakonak sartuko dautso bere arpoia bein, eta, aalik badau, birritan. Txalupak zai geratuko dira, balea menperatu arte; baiña, gertuen daudenak beste arpoiak sartzen saiatuko dira. Baleak bere gorpu aundi koipetsua ur aundietan murgiltzen dau. Azpitik ibilli arren, azalean ere eragiten dautso urari eta brankan doian arpoilariak erakutsiko dautso patroari nundik jo. Beste txalupak urduriz daude nun agertuko dan balea.

Balea preso dago; bizirik, ordea, orañdik. Il egin bear eta ez da gauza erreza bale bat iltzen. Arpoiak sartu ondoren, xabolñak erabilli bear dira balea akabartzeko. Xaboliñek ez dute kakorik eta errez ateratzen dira balearen aragietan sartu ondoren eta txalupa guztiek saiatuko dira beuren xaboliñak baleari sartzen. Parte artu daben guztiek izango dabe beuren partilla, bakoizak beure lanaren neurrian.

Burruka orretan okerrik gartatuko ba litz, baleak berak ordainduko dauz okerrok. Baleak iges egingo ba'leu, orduan Kofradiak ORDAINDUKO DAUZ.

## Atoian

Izaten dira, il da gero, ondora joaten diran baleak ere, eta kontuz ibilli bear. Azalean eutsi arazteko, bi txalupa aundienak aukeratu eta balearen egaletan esker-zkubi ipiñi; ondoren, txalupa batetik bestera, iru txikot bota: bat buztanaren azpitik, bigarrena gerriaren azpitik eta irugarrena buruaren azpitik.

Lan orrek eginda, atoian, ondartzara eruan maria-puntan eta maria berutz danean, ondartzan geratuko da. Gerora, polea bateaz, gorago jaso zatituteko. Lan ori Lekeitio'n elizaren kontura zan. Onela dio Ciri-quaiain Gaiztarrok: "La Ordenanza e Mantenencia de Lequeitio reducida a cuaderno en 1486, establece que el Manobrero (Elizarena zan arazo au), había de tener a disposición de los balleneros, cuando se abriera la campaña, material de cables, tornos, vasos, barriles, imanas y puntales para esta operación (varar y levantar las ballenas) como para el varado de las embarcaciones".

Bein balea jaso ezkeru, ondorengo lanak Kofradian dira. Bertako txiliña oska eta deika asita dago. Guztiak

Kofradira doaz kanpaiaren ondoren salmenta asíko da-ta. Mai-buruan Kofradiako Maiordomoak, txalupetako patroiak eta lege-gizona notaritza egiteko. Argizari bat píztu dabe eta argi orrek írauten daben arte iraungo dau salmentaren jokoá.

Deba'ko Ordenanza Berríak, 1685'ko Abenduaren amabostekoak onela díñote: `Primeramente pusieron por espresa calidad y condición que todas las ballenas que tuvieren fortuna de matar se pongan en almoneda y candela pública en el puesto acostumbrado por testimonio de escribano público que de ello dé fe y con asistencia de los Maiordomos y los Maestre-chalupas que se hallaren en dicho puerto...' Getaria'n, berriz, auxe: `Se puso un cabo de candela de cera encendida, declarando que durante su incendio se haría el dicho remate en la persona que mas díere'.

\*

Balea oraíndík ondartzan dago, eta, Kofradian erre-matea egin dabenak zatituko dau: Buruko azalari zulo bat egin eta ebagi bat buru aldetik; zulo aretan txíkot lodíkote bat lotu. Bi mutil bale-gaiñera igo dira eta, txírristarik ez egiteko, egurrezko iltza luzedun oiñeta-koak jantzí dabez eta larruzko soiñekoak. Lurrean dago-zan beste bíak, polearen bitartez, txíkotatík tíraka así díra. Bitartean, gaiñean daudenak, bakoitzak bere alde-tik, azalari tarratara bana egíten dautsoe burutík así eta buztaneraíño. Orrela, zati luze eta estua kentzen dau-soe balearen azalari.

Ondoren, beste zati bat. Eta orrela jarraitzen dabe gorputz osoa larrutu arte kutxillo luze kirtendunekaz. Larrutzean, aiztoa gorputz eta azalaren tartean ere sar-tzen dabe. Orrela erantsi dute azal guztia, aldíko balea-rí gíra egiñaz.

Azal dana kendu ezkeroz, lau kuadroko zatiak egí-ten dabez, labara eruan eta bertan urtuteko: 20 zenti-metro aldeko. Barruko aragia eta saiña aizkoraz eta aízto aundíz zatituko dabez. Labarako orrek ere. Zatiak jasotzeko ba daukiez artarako ontziak eta labara eruate-koo, gurdíak eta narrak.

### Koipeak urtuten

Azal zatíak eta koipedun aragiak, edo seína, erritík kanpora dagoen labara eruan dabez. Debekatuta egoen labak erri-barruan egitea, keiak eta atsak eragozpen asko sortzen ebelako. Donostiko 1415'eko lege batek orixe agíntzen dau. Lekeitio'n ere, bardin.

Labak ladrilluz egíten ebezen eta lau kuadrokoak zíran: alde bakoitzetik kana t'erdi zabal, eta gora, berríz, kana bat. Beeran zulo bat barruraíño, andík ikatza sartu eta sua egiteko, eta bertan, bi burnizko barra, lurretík

jasoak, gaiñean koípearen txíngarrak erreteko, ikatz-egurra berbera baíño obeak ziran-da.

Gaiñetík ere zuloa eukien lurreraíño onek labok, kaldara ípinteko. Kaldara edo lapíkoak iru neurritakoak zíran: bi pipakoak, pípa batekoak eta pipa erdíkoak. Pipa bakoitzak 450 litro ebazan. Kobrezkoak ziran eta loditasuna, aunditasunaren neurrián: bi pipakoak, bí beatz lodi; batekoak, bat eta erdíkoak, erdía. Lumera izena be erabíltzen dabe laba eta kaldarak esateko.

Seína urtuten danean, an inguruan gertu dagoen lau kuadroko ontzi batera eruan. Egurrezko ontzi orre-tan ura ipiñi dabe erdiraíño eta koipe urtua botaten danean bertara, azalean gelditzen da igerí eta zaborrak azpíra doaz. Badauko ontzi orrek txotx bat, uraren parean, zulotík koípea atarateko. Noiz edo noiz ura aldatu eta garbitu; gero azpítík zaborrak kendu.

Koípea garbitzeko beste modu bat be erabíltzen eben: burruntzali edo tangarta aundiekin artu labatík eta urez erdiraíño betetako barríka batera bota; gero barríka aretatik beste batera pasa, au be urez erdiraíño; andik, írugarren barríkara, koípea garbitu arte.

Garbitutakoan, orduan, gazítuta berrilletan gorde. Barrillak Fueroaren aginduz 400 librakoak bear zuten izan. Koipea bera íru klasetakoa zan: zuria, oria eta gorria. Baíta oietatík ataratako nansteak be. Onena zuria zan eta eskasena gorria.

Zertarako zan bale-koípea?

Argitarako batez be. Argi zoragarria egíten dau (argi-zariak bezín ona eta askoz merkeagoa) eta, elízak, naiz etxe guztíak, naiz urí nagusietako kaleak, bale-koípeakin argítzen ziran garai batean. Mingaiñetik ataratako seína, ordulariak eta beste tramankuluak leuntzeko, bera koi-perik onena.

Bale-aragiak ez eban batere estimaziorik euskaldu-nen sukaldeetan. Jateko Frantzira eramaten eben. `Gari-zumako urdaia' esaten eutsoen. Okelea jaterik ez zanean, bale-aragía librea zan, Elizaren usteetan arraiña zalako. Círquiain-Gaiztarro jaunak onela dio:

"Esta pesca —dice Lefevre, en `Les modes de vie dans Les Pyrénées orientales'— adquirió tal importan-cía que, en 1059, el mercado de Bayona se hizo conce-der el privilegio de la venta de carne de ballena".

Baño, gure artean, ego-aldean izen txarra eukan. Dana dala, ona emen bale-okelea jateko era batzuek: Gatza emon eta tipula, berakatza eta perrejillagaz egosi. Parríllan erre eta naranjakín jan edo bestela azukre eta espeziákin egíndako zukuakín. Erreta jateko onenak, míngaña eta gibela.

\*

Barrilletako koípea Naparroa eta Kastilla'ko bídean



doa mandoetan gero andik onuntz ardoa eta garia ekar-teko. Ez pentsa legorretik bakarrik dijoanik; gure kafe-tan edonoiz agertzen ziran holandar eta ingelendar oial zuria. Bafta Dinamarca eta beste laterrietatik ere. Guz-tiak datoz koipe-billa.

### Irabaziak hanatzen

Gaur egun atunak eta bokartak ogia dakarre arran-tzaleentzat, baiña beste askorentzak be bai. Arrantzale ez dan askok jaten dau atun eta bokartaren bizkarretik eta, bear ba'da, arrantzalea berak baiña obeto. Beste orrenbeste gertate zan bale-arraritzakin be. Bear eta lan ugari sortzen eban baleak bere inguruan: zatiketa, koí-pea urtutzea, egur-íkatsa, pertzak eta kaldarak, barríllak eta tinak, mando eta mandazaiñak, itxas-ontziak, denda eta dendariak... Zer ez?

Barrilleruak, esate baterako, galdu dira portuetan. Deba'n orain berrogeita amar urte íl zan aizkenengo barrillerua. Getari-kaí-gaiñean an ikusten genduan barrilleru bat bere lanean oraintsu arte. Begíra-begíra ego-ten nintzan zer patxada ederrean lana egiten eban. Lekeítio'n, nere gaztaroan, onela kantaten zan:

Orduan egunían jan eben bokarta,  
Santi barrilleruak auskía aparta.  
Kalkula uste, pues, pues Ixirora,  
ama ataraixu otzaratík kanpora...

San Níkolás ontziak 435 tonelada ebazan eta 75 giza-seme barruan. Joan de Espilla zan bere kapitán debarra eta 1564'garren urtean 1195 barríka ekarrí eba-zan koípez beteak. Koipebakoak be izango ziran beste talde bat. Begira zenbat barrí erabíltzen ebazan ontzi bakoítzak.

Balearekin batera galdu ziran ogi-bide asko gure kaletan. Oiek alde batera laga-ta, goazen balearekin berarekín zer egíten eben ikustera.

Lekeítio'n mingaiñetik ataratako koipearen irutík bat elizarako izango da; beste biak agintarientzat moíllak konpontzeko. Eleízeak, berriz, koipe orrekin `manobre-ro' bat bear eban mantenu; aurrerago esana daukagun modura. 1486'ko agíndua.

Getaría'n, 1683' an, balea íru zati egiten eben: bat erriarentzat moíllak eta kaía zaintzeko; bigarrena txalu-pako patroientzat, euronak izan oi ziran-da ontzia eta tresna gustiak; írugarrena maríñelen artean zabaltzeko.

Balearen zati bat talaí-gizonarentzat, berak erakutsí ba dau balea. Beste bat ba'lítz, oneri kíntal bat aragi dirutan. Lenengo arpoia sartu dautsonentzat bi kíntal aragi; beste bost arpoiengatik, kíntal bana. Xabolin bakoítzeko, bosna libra aragi. Arrantza arí dan artean, ontzie-tan edo gizasemeetan okerrík ízan ba'da, baleak ordain-

duko dau, partiketan así baíño lenago. (1555 Lekeítio'ko Ordenantzak). Ezbearrak estatxa edo arraunetan izan ezkeru, orduan ez dago ordaiñik.

Banaketa onek así aurretik, abantailak edo saiiak ordaindu bear ziran. Balea aundia zanean, sari ori lenen parte artu eben amaz txalupetan banatu bear zan. Lenengo arpoía sartu dabén txaluparí buztanetik eta burutik laurdena. Beste iru laurdenak bederatzi txalupen artean banatuko dira. Bale-kumea izan ba'lítz, sarí edo aban-tailak seí txalupen artean bakarrik banatuko ziran. Lekei-tio'rí buruz ari gara. Beste portuek badute aldaketarik.

Bale-kumea beti bere amazekín etorten zan, eta arpoia sartzen eutson lenengo txalupak, bale-ama íl dabén artekoa izan ez arren, abantailak izango dauz amaren bizkarretik. Zergaitik? Kumea il ondoren, bere ama arrapatzea oso erreza zalako.

Estatxa eta apareju onak erabiltzeagatik be bazuten saria; baita zigorra ere ondo prestatuta ez dagozanean. Onela dio Anuario de Eusko-Folklore XXII 82'garren orialdean, Lekeítio'ri buruzko lan batean:

"Cómo en 1550 los señeros debían inspeccionar anualmente los aparejos para la pesca de la ballena: `ori quanto todas las prevenidas precauaciones y cuida-dos que le ban encargados al talaíero no basttan para lograr el apettecido fin de que se matten algunos de dichos peces no hallándose las chalupas suficientemen-te surtididas de estachas, sangraderas, dardos y arpones necesarios para el effeto... exponiendo con índividuali-dad y por parttes la suficiencia o defecttos que hubie-ren hallado... para que dentro del término arbitrario... se surtan de dichos instrumentos y aprestos necesarios, y que no haviendo assi se tendran por no partes ni derecho havíentes en la matanza de dichos peces...".

Arpoiak mutur zorrotza du eta bí ego aldamenetan, aragian sartu ondoren, bertan katigu geratu dadín. Gal-tzaíruzkoa da eta 60 zentimetrotik 70'era bere luzeroa. Kírtena, pagoa, metro bat eta irurogei zentimetro luze; lau zentimetro lodi. Orain bosteun urte, arpoiari lotuta-ko sokeak 70 kana bear ebazan luze eta ogeita amar ariz egiña, gutxienez. Onek ziran estatxa on baten neurriak.

\* \* \*

Bakoitzak balea bere portura eraman nai ízaten eben; baiña, ítxaso zabalean errí askotako txalupak biltzen ziran eta burrukak sortzen euren artean, nork arpoia lenengo sartu eutson baleari. Orretako burruka bat zan Ibarrangelutarrei gertatakoa 1611'garren urtean, Ilbel-tzaren II'an. Ibarrangelutarrek Elantxobe portutík irten eben, eta Ea'ko barran íru bale íkusí ebezen albakoan.

Balearen atzetik Ogoño mendia pasa eben Bermío-runtz. Orduan Elantxobe'tík bi txalupak urten eben

ibarrangelutarren laguntzan. Une aretan Bermeo'ko kaitík íru txalupa lekeítíarrak atara ziran eta bale bat íl eben iruren artean. Besteak bat be ez eta ortik sortu ziran sekulako asarreak. Orrelako asarre eta burruka asko ekartzen dauz historiak; baiña Ondarroan bilduriko paperetan dakarrena esango dogu. Ona bertso zaarrok:

Zubek getaríarrak  
besigo ugari  
utzí ezazute  
gure baleari  
ama igesi joanda  
umea da ori.  
Segí ezaiozute  
nai badezue ari.

\*

Luis Gaistubak eman dik  
lenengo arponada;  
balía arrapatzeko  
txit gizon ona da;  
estimatzekua da  
alango arponada;  
bederatzi milla erríal  
bazuben jornaia.

\*

Joshe de Karamelo  
bigarren golpían  
ederkí portatu zan  
bere subertian  
baliari odola  
bízkarra betian  
ezitzaíon geldítu  
ito zan artian.

Bale-kumea izaník, bí arpoi naikoak izan ziran bera menperatzeko eta lenengo arpoiak 9.000 errial izan ebezan sarí. Ez zan díru gutxi.

\*

### Terranoha'rako bidean

Shelma Huzley nere etxean ízan zanetik, 1970'garren urtean, ogei urte pasa dira. Deba'ko eleizearen liburuak ikusí nai ebazan eta onela esan eustan: —Liburu auetan Terranoba'ko kapitan askoren izenak egongo dira. —Nere aita be, erantzun neutson, Terranoba'ko kapitana zan eta berrogeita amar kanpaña baño géago egiñak eukezan bakallautan, berreun urteetan emendik ara íñor joan gabe pasa ondoren.

Arrezkero ar-eman asko izan doguz eta banekien Oñatí'ko Artxíboan ebillela gure aurrekoen aztarnen

billa. Zazpigarren urtean, 1977'garrenean, iru dokumentuen bidez, bale-ontzi euskaldun bat topaten dau Labrador'en. San Juan ízeneko bale-ontzia, irurogeíta amar arrantzaleekin lana egiten ebana.

Arrantzale oneík erabíltzen ebezan egurrezko txali edo platerak, zeramika gaiak, tellak, eta barrika ugari koipea gordeteko, topa dabez barruan. Eta ontziko zuraren bitartez, biotza arakatuz, jakingo ei dabe barkua nun egiña dagoen eta nungo arbolakaz. Euskalerrían egiña dala, ori zalantzarík gabe dakite: bale-ontzia euskalduna da eta bertako gauzak ere bai.

Bein batez onela esaten eustan Shelmak: —Las costas de Canadá, Labrador y Terranova están llenas de las tarjetas de visita de los vascos. —Eta, zer dira 'tarjeta' onek? —Tella zatiak; baztar guztíetan daude eta an ez da tellarik erabíltzen. Baiña, zuek esaten dozen bezin goíz ez ziran an euskaldunak agertu. —Zergaítik ez? —Orren dokumentu goiztarrík ez dagoalako.

—Begira, Shelma Barkam (abizen orrekin agertu íatan; Huxley senarrarena dozu) zuk ez dozuz euskaldunak ondo ezagututen. Bada, eta ez bakarra, perretxiko leku bat topa eta emazteari be esaten ez dautson euskalduna. Oraintsu ebakuntza bat egin dauzte eta sendagíllea opor-aldietako arrantzale amorratua da eta askotan irteetan dau erriko arrantzale bategaz. Bein esan eutson: Zu, Pello, bakarrik joaten zarenean atrapatzen dozuzen kabratxo orrek, zer tokitakoak dira? —Bai, zeuri esangoztut, gero zuk beste bateri esateko... Ori dana, lagun miñak ízan-da arrantzalea eta erríko sendagíllea. Kontuak atara bestíekin zer egingo daben arrantzale orrek.

Balea geienetan banaka etorten zan gure kosta-aldera. Batzuetan bale-kumea lagun ebala eta noiz edo noiz bale-arrakín. Emengo bale bakartia Terranoba, Kanada eta Labrador tarteko kolkoan sardan topa eben euskaldunek. Sarda, "cardumen" erderaz, arrai-multsoa da eta balearí ízena Sardako Balea ípiñi eutsen, bakarka etorrí bearrean, sardan agertzen zalako. Bakarka aberatsa ba'da balea, zer ote zan sardan?

Aberastasun onek, an Jainkoak dakien leku ízkutu baten topa, eta Euskalerrí'ra etortean, tronpeta jotzen asiko al ziran eta paperak ídazten altxor ori munduan zabaltzeko? Ez, oríxe! Iñundík be ez. Aal eben urteetan íxilik gordeko eñen berrí miragarrí ori. Euskaldunok motzak izan ba gara geure ekíntzak ídazteko, 'largos en facellas y cortos en contallas', kontuak atara berríro, zer íxíltasunez gordeko ebezan aurkitutako aberastasunak.

Emen paperik ez dago eztabaidarik ez ba'da. Burruka danean orduan asten dira paperok epaillearen aurrean. Eta, ori berorí gertatu zan Labrador'eko ondoratutako San Juan ontziarekin. Armadoreak kapítanarí botaten eutson ondamendiaren errua. Eta kapitanak bere burua

zuritu. Eztabaida orretatik bílla dauz íru dokumentu Shelma'k eta íru dokumentuetatik atara dau nun dagoen ontzía ondoratuta. Burruka ízan ez ba'lítz, San Juan ontzía an iraungo eban íxiltasunean betirako.

## II

### Noizkoa da bale-arrantza gure artean?

Galdera orrek bi alde dauz: noiz gure ítxasoan eta noiz Terranoba'n. Noiz asi ziran euskaldunak bale-arrantzan eta noiz agertu ziran Terranoba aldetik. Erantzun garbirik ez daukagu ez batentzat eta ez bestearentzat.

I056' ko dokumentu bat aitatu dogu Baíona'koa. Bera da dokumenturik zaarrena. Besteak I200 urtetik aurrerakoak dira. 1233'garrengoa da Privilegio Rodado deritzana. Bertan Kastillako Erregeak Mutrikitarrei bale bat eskatzen dautsoe urteoro. Latiñez dator dokumentua. Baiona'ko paper-agiriak onela díó: 'Esta pesca adquirió tal importancia que, en I059, el mercado de Bayona se hizo conceder el privilegio de la venta de carne de ballena'. Beraz, ainbesteko ganantzia artu ba eban bale-arrantzak, seiñale da aurretik etorrela. Zenbat denbora bear izan eban onelako garrantzia izateko? Dokumentuetatik ez dogu sekulan jakingo.

Alan be, gauza jakingarri bat badaukagu esateko. Gure sustraiak prehistoríaraino luzatzen dira beti eta garai artako kobetan badoguz bí arpoí mota: bíak kirtenagaz erabiltzen ebezenak; baiña, batek orpoan zuloa dau bertatik txikota lotuteko eta besteak ez dauko zulorik. Gaur eguieiz be, Deba-itxas-ertzekeo baserrietan arpoia erabilten dabe gaba-arrantzarako, kirtenduna eta zulorik gabea.

Zulodunetik sortu zan bale-arrantzarako arpoía. Teknika berdiñekoak dira biak. Histori-aurreko euskaldunak ebe, arraiñari arpoia botaten eutson soka bateri lottuta, gero soka orregaz arraiña jasoteko. Ezurrezkoa zan arpoia eta arraiñak txikiak. Arrain aundiari aurpegí emoteko ausartu zanean, orduan arpoia burdiñezkoa egiñ eban... Eta burdiñaren arazoak iru milla urte badítu gure artean.

Noiz asi ziran euskaldunak bale-arrantzan? Zíur-zíur dakígu oraín milla urtetik aurrera bale-arrantza egíten ebela. Baita ere, ziur dakigu orain iru milla urte bale-arrantzarik ez ebela egiten, artarako arpoi egokírik ez ebela. Bi milla urteko tarte orretan sartzeko argirik ez dogu.

### Eta, Terranoba'ra noiz?

Aurretik esan dagigun lendik esana doguna: bazter aberats aiek topa ebezenak, ez ebela kampairik joko, berri orí zabaltzeko. Orí berorí esaten dausku Kanada-

'ko seme dan Belanger idazleak: 'Arrantzale euskaldunak historiagabeko gizaseme apal eta umillak, urteoro beuren arrantza lurralde auetan beteten eben... Arrantza oso aberatsa izanik, oso pozik dabilta bere suerte orrekin. Onela urteoro etorten zíran eta urteoro joan. Zertarako aizeetara eman euren gordeleku aín aberatsa...?'

Euskaldunek topa ebela Terranoba, esaera oso zabaldua da munduan. Eta ez euskaldunen aotik, bestela baizik. Kolon'ek Indieta'ko bideak así aurretik, Madaras deritzan ugartean, euskaldun mariñel batekín topa egin eí eban eta onek esan, bazirala lurra mendebaletik. Ori diño Etienne Cleirac, Frantzian 1661'garren urtean eta orí agertzeko Aíta Antonio Roman'ek idatzítako 'Historia General de la India' aítatzen dau, Bigarren Liburuaren Bigarren Kapituloko 8'garren orialdean.

D'Alembert jakintsuak, bere Enzíklopedia famatuan, Morue (bakallaua) berban esaten dau, Euskaldunek topa ebela Terranoba; eta, Balea itzean, auxe diño: Euskaldunak izan zirala balea arrapaten eta bere koipea urtuten lenen ikasí ebenak. Enzíklopedia ori I789'koa da. Au berberau esaten dausku Jules Michelet'ek bere La Mer liburuan 1861'e'an. Andík amazpí urteera Van Beneden idazleak, bere 'Un Mot sur la Peche de la Balaine et les premiers Expéditions Arctiques' liburuan diñona au da: 1372'garren urtean topa ebela euskaldunek Terranoba.

Ez dira guztiak or amaitzen: Oraíndik oraín, 1946 an Robert de la Loture'k esaten dabena be ez da makala: Kolon'ek Ameriketean lurra ikusi baiño 200 urte ariña-go, topa ebela euskaldunek Terranoba. Baiña, aurretik, X'garren gízaldiak bikingoak an ibilliak zirala, beroien aztarna guztiak galduta egon arren.

\* \* \*

Gure errian agertzen diran paperetatik, gutxí eta berandukoak, gauza onek íkusten doguz: 1526'an, donostiarrek Terranoba'rako bidea ikasíta eukela. 1530'e'an oriotarrek. I545' an zarauztarrek. Ori da paperetan agertzen dana. Orrek ez dau esan nai, aurrerago joaten ez ziranik, ori probatzeko paperik ez dagoela, baizik.

Terranoba ugartea edo isla ete zan ez dau iñork ipini itsasoko mapeetan, Kartier ingelesak Terranoba'ri buelta osoa emon eutson arte. Eta ori gertatu zan 1534'e'an. Labrador eta Terranoba'ko tartetik pasa zanean, an topa ebazan euskaldunak bale-arrantzan. Belanger idazleak díonez, bada Paris'eko Biblioteque Nationa-lean 1550'garren urtean André Thevet, 'cosmographe du Roy'k egiñiko idaztí bat, oraíndik argitaratzeko. Bertan esaten da, Kartier jaunaren aurretik eldu zirala euskaldunak San Lorenzo ibaiaren aora, balearen arrantzarako.

San Lorenzo íbaiaren kolkoa milla kilometro luze bada eta Kanada, Labrador eta Terranoba'ren tartean dago. Paris'eko dokumentu orretan esaten dauskue Minin-

go ugartea ebela euskaldunek gorde-leku eta lan-tokí; ugarte onen inguruan egozala arrantzarako kalarik aberatsenak eta urte osoan ez zala bertan balerík palta.

Bertako indioek Míningo deite eutsen ísla orri, gero histórián zear, Ile-aux-Basques ízenakín ezagutua ízan da. Bi kilometro luze eta 700 metro zabal dauz eta alturarík aundienak, 50 metro besterik ez.

Belanger jaunak bere aldetik esaten dauskunez, ugar-tearen egoaldean diraute ondiño euskaldunek an jasori-ko arrizko labak. Irurak egoaldean: bi eguzkiaren sorle-kuari begira, baleak etorten diran lekutík, eta írugarrena, eguzkia sartzen da lekutik. Ango euskaldunek utziriko aztarnetatik íkusten da —díó idazle berak — 1534'garren urtea baiño goizago íbiltzen zirala euskaldunak balea arrapatzen leku aietan.

## Terranoha'rako ontziak

Euskaldunek Galizia'ra joaten ziran arraiñetan; baíta Irlanda'ra be. Orretarako ontzi aundiák bear ziran, bi edo iru mastakoak. A. Apat-Echebarne idazleak díño, 1412'garren urtean bazirala euskaldunak Islandía'n eta badala Gípuzkoako Foru-aldundien Liburutegian islan-dar eta euskerazko iztegi bat. Iztegi orren premía senti-tzeko, artu-emon aundiak ízango ziran -Islandia eta Eus-kalerría'ren artean.

Islandía'ra joateko eta gero Terranoba'ra bidean aste-ko 100 toneladatik gorakoak erabiltzen ebezan. Nor-mandía, Bretaiña eta La Rochelle'ko arrantzaleek 50 eta 100 toneladakoakín ebiltzen; baiña, euskaldunen 100 toneladako ontziak bakallautarako ziran; baletara-koak 200 toneladatík gorakoak. Geienak karabela típo-ko ontziak.

Karabela estua eta luzanga zan; ontzí ariña eta íbil-karia. Iru mastako barkua. Aurreko bí mastetan guru-tzeak eramanten dabez, euretatik lau-kuadroko bela-oiálak lotzeko. Atzeko mastan ez dago gurutzerik:

Galeoia astunagoa zan eta sendoagoa. Bera zan itxa-soetako erregea. Onek karelak edo aldamenak eukazan gora jasoak, ur aundietan luzaro egoteko egíña. Kanpa-ña bat egíteko zortzi illebete bear ebezen Terranoba zaleak. Denbora luzea eta bideak be luze. Eta, besterik gabe, asi gaítezan galeoi baten história kontatzen.

## San Nicolas galeoia

Joan de Espílla debarra zan galeoi onen kapitana eta Gonzalo de Landaverde, berriz, ontziaren nagusia. Geienetan ontziaren nagusia eta kapitana, biak bat ziran, persona bakar bat. Emen ez da orrela gertatu eta orre-gatík ar-emanak paperetan idatzi ebezan. Tripulazioa-kin egíndako trataoa itzezkoa zan. Berba utsak besterik gabe. Kapitan eta nagusiaren arteko kontratua Teófilo

Guiard idazleak dakar bere Historia del Consulado y Casa de Contratación de BÍlbao y del Comercio de la Villa liburuan. Urtea 1564, Ilbeltzaren 17'an síñatu ebe-zan paperok.

San Nicolás izena imiñi eutsen, 435 tonelada ebe-zan eta 75 gizonetzko barruan. Iru mastako galeoia zan eta iru mastetan eukezan gurutzeak lau-kuadroko bela-oiálak esegiteko. Emezortzi kañoi: sei aundiak eta ama-bi txikiak, bederatzi egal bakoitzeko. Arkabuzak bi kin-tal polborakin, amabi ballesta bakoitza bi dozena azko-nekín eta eunka bestelako burnizko armak.

Portugalete'ko kaian artu eban Espíllak barkua bere mende 30 lagunagaz. Eurotatík nagusiak sei aukeratu ebazan: maixua, kontramaixua, arotza, kalafatea, marí-ñel bat eta zaíndari bat. Eta kapitana. Ilbeltza pasa eban kapitának beste lagunen bílla ogeíta amar osotu arte. Nagusia, berríz, diru-eskean. Barku aundia zan, jende asko barruan eta onek danok eskabide aundia ekarren. Bazíran dirua korrituan ematen ebenak eta paperetan izen asko dagoz idatzita dírua eskatzen ebe-nak. Korítua % 25 izanten zan.

Arrísku aundiák ebazan Terranoba'ko bídeak eta segurantziak ere bearrezkoak ziran. Inglesek ez ebezen euren barkuak aseguru 1604' garren urterarte. Euskal-dunek aurrea artu eutsen 50 urtez gutxiénez. Ontzia, tresnak, bakaillauak, koípeak, gizasemeak orra guztiák seguroean ipiñiak Burgos'ko Juan Jose Lopez de Soto-ren ardurapean. Berak ematen ebazan segurantzi osoak. Espílla'ri berak egín eutson segurua beste askori beza-la. Bítarteak ere baebazan jaun orrek Donostía'n, Bilbo'n, Doníane Loitzun eta Baiona'n. Ifar-aldeko eus-kaldunak La Rochelle eta Bordel'era joan oi ziran beu-ren barkuen segurantziak egitera Doností edo Bilbo'n egíten ez ebenak.

Espílla Portugalete'tik Getaria'ra etorría zan. Arpoi-lariak bear ebazan batez be: Getaría'n bertan topa dituz bí, Domingo Sebí eta Juan Arana; Zarautz'en beste bí, Domíngo Zerraondo eta Joannes Lersundí; Orío'n bat, Krístobal Txanez; Ondarroa'n beste bat, Juan Lopez de Murgurrizar. Sei arpoilarí. Lau ziran bearrezkoak, lau txalopa batera ekiten ebelako balea atrapatzen; baiña, txalopak ere bost eramaten ebezen; aíetatik bat erres-petorako. Errespetoko gizonak bí ziran. Ez zuten seirok berdín lan egin, sarí berdíñík, beintzat, ez eben jaso. Sebi getariarrak, Txanez oriotarrak, Zerraondo zarauz-tarrak eta Murgurrizar ondarrutarrak bakoítzak amar barríka jaso zituzten sari; Arana getariarrak, bost; Ler-sundí zarauztarrak, bi.

Lau txalopen patroiak onek ziran: Kapitana, píllotua, maixua eta kontramaixua. Maixua eta kontramaí-xua barruan ebazan Espíllak eta píllotua Ondarroa'n topa eban Gaspar Elgeta.

Bost barrílleru aurkitu ebazan: Ramon eta Juan Baio-

na'koak, Juanes de Aranza getarriarra eta beste bí, Domíngo eta Agustin. Zertarako ainbeste barrilleru?

Arraunlariak billatzea erreza zan; edozeñiek ekian arraunian. Argiña bear eben labak egiteko; errementarí bat be bai; balea ebagi eta koípeak urtuteko, beste sail bat.

Guztiak barruan daude, 75 gíza-seme. Auentzako jan-edanak ez ziran gutxí ízango zortzi illebetea zear... Ez dakigu Ispíllak zertzuk eramán ebazan; baiña, Bafo-na'tik irtetén eben 200 toneladatik beerako ontziék zertzuk eramaten ebezen, baí badakigu Marinako Agintarien esanera. Ona zertzuk.

Galletatik 230 kíntal,  
sagardotík 60 barríka,  
ardotík 12 barríka,  
babatík 12 barríka,  
makallau sikua eta sardiña zaarrak.  
Baita urdaia, olioá, eta ospiña.

Oietzaz gaiñera arrantzale bakotzak pattarra, urdai-azpíkoa eta gaztaía eramaten ebazen, jantziak gordeteko eukazen kutxatilletan.

Soiñekoen berri ez dakít; baiña, bakallautan ebíltzenak onelako jantziak erabiltzen ebezen: Iztarretaraiño-ko bota luzeak; oien gaiñetik jantzi luzea boten amaiera baiño beerago íristen dana, ardi-narruz egiña eta bere ílleakín, larru-aldeítik liñazi olioz ondo igurtzia, urík pasa ez dadin barrura; gerritik beeraiño-ko beste narruz-ko soiñeko bat, uraren kontrakoa. Eta buruan kapel bat, eskapularío antzeko txatal bategaz, lepotik beeraiño... Izotz-arteko itxasoetan ibiltzeko egokiak.

Bear ba'da, baletarako ariñagokoak izango zíran; baiña, naí eta naí ez, beroak eta uraren kontrakoak.

Terranoba'rako joan-etorria egiteko gauza asko bear ziran barruan errespetokoak: masta, aín-gura, bela-oialak, soka eta guztietakoak, bost txalupetatík bat errespetorako baiña guztiak bale-arrantzarako tresnaz ondo ornituak, amoko edo ístupa (Calatayud esan oi zíoten, ara joaten zirelako amoko-billa), píkea ontzia ístupateko (auxe zan kalafatearen lana) eta abar.

Ontzia ístupatu bear zan azpitik, aldamenetatik eta gaiñetik Terranoba'rako bideak artu aurretík. Eta, andik onuntz asteko, berdín, ontzia ístupatu amoko eta píkearekín urari zírrikitu guztiak ítxíteko. Lan oien osagarri-rako animalien kintal bat koipe be eruaten eben. Danak eruan bear, an ez egoen, arraiña besterík, ezer be.

Ontzia ístupatuta dago, gíza-semeak eta material guztia barruan, Martxoaren 15'ean, Kapítanak —Arria txíkotak— agíndua ematean. Ordurako bost txalupak uretan dagoz bakoitza sei arraunlari eta patroí bategaz: ogeita amar lagunek atoian daroie San Nicolas galeoia itxaso zabalera. Txalupak jaso eta bela-oial zuríak mas-

tetan beera zabaldu. Gaur napar-egoak jotzen dau, oí-lak bete... 30 egun pasako díra Terranoba eta Kanada tarteko San Lorenzo kolko zabalera eldu orduko. Ateetan, bertan, dago Cansó portua:

"Canseau'ra eltzean,  
Ifarraldean,  
Ama Bírjína'rí  
eskerrak ematea da...

.....  
Nik Denis de Rotís'ek ídatzí dut;  
Kaia Doniane Loitzun...  
Urtea: 1674'garrena".

Anduk aurrera egunak bear ziran Míkingo, edo Ile Aux Basques, islara írísteko. Lenengo lana ízaten eben emendik ara joaníko barkuek kaí bat billatzea eta bertako piñu-masta batean barkuaren izena eta eguna ipíñi. Bertan ez da beste iñor sartuko. Ondorengo lana piñu-teriakín moilla bat antolatu eta txabolak jaso lanerako eta egoítzarako. Baita labak be. Tellatu guztiak, emendík eta eramánko tellaz. Eta apurtuta lurtean geldítu diranak historian zear, orrek dozak, Shelma Barkham'ek esandako `tarjeta de visita de los vascos'. Barri-llak, barkutik bíltokira eta berriak bear diranean, bertan egin.

### Indioekin ar-emanak

Indioek euskaldun ontzia íkusí orduko, pozik datoz ondartzara azoka egiteko asmotan: kastor-narruak eskue-tan eta irriparra ezpañetan. Euskaldunek eskeintzen ebezanak, oíen truke, onek ziran: burdiñezko aizkora eta aíztoak, sagardoa eta ogí-galletak gozokí gabeak, barruan jaten zan ogía eta bela-barkuek iraun dabien artean, barruan jaten ebena. Neu ere janda nago zazpí urte nebazala El Ferrolano izenako bela-barkuan nere aita kapitan zalarík. Galleta borobíllak eta galletak ízateko aundixamarra.

Azoka bukatu-ta, legorreko gizonak legorrera eta ítxasokoak barrura bale billa. San Nicolas itsasoan dabil eta mastako mutíllak balea íkustean, garraxí dagí: Esku-bitiki edo Eskerretíki Orduan ontzia inguratuko zaio bi mílla. Gelditu eta lau txalupak, uretara. Txalupetan zortzi gizon: aurrean arpoilaria zutik, sei mutíl arraun-ean eta atzetik patroía: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza bere txalupan.

Lau txalupok, balea inguratu, eta burrukan ekingo dabe Euskalerría'n bezala. Emen darabíltzen xabolíñak edo sangraderak aundíagoak díra; beste diferentzírík ez dago. Balea iltzen danean legorrera daramate, urtu eta koipea barrilletan sartzeko. Lan auetarako indíoei lagun-tza eskatzen diete sei íllebetez alogeran, ontzia koípez eta bale-bizarrez bete artean.

Udazkenean, karga osoa barruan dala, kalafatea bere lana amaitzera doa: Ontzia berriro ístupatu bear, itsa-

soak jan dío-ta pike guztia. Amukoa eta pikea berriz be. Indioeri agur beroa egin ondoren, San Nicolas, galeoi sendoa, San Lorenzo ibaiaren kolkotik írtetera doanean, azken-portua Cansó da. Andík aurrera Atlantíko itxaso zabal-zabala, Galizi aldera eldu arte.

Negu-usaiñarekin batera, euskaldun ontziak Euskalerrí'runtz dabez beuren proak. Azkeneko arnasa Cansó'n artuko dabe sail batek alkarren babesean itsasoa zearkatzeko. Atzean utzi dabez indioak eta beuren lurak. Eurokin íbilli dira betí pake santuan, lana eskeiñíz. Euskalerrít'k etorri dira eta Euskalerrí'ra doaz datorren udaberrirarte. Indioek zai egongo dira euskaldunak noiz agertuko, pozaren pozez, eurokin azoka egíteko eta eurokin lan egiteko. Belanger idazle kanadarrak dionez, euskaldunek ez zírala ara kolonízatzaera joan, eta ar-emanetan beti adískide ibilli izan zirala indioekin; baita euskeraz erakutsí ere zenbait itz eta zenbait esara. Beste nazíoarteko arrantzaleekin euskaldunek izaten ebezan burruketan, indioek beti euskaldunen alde jokatzan ebela. Eta abar.

\* \* \*

Euskaldunek, Kanada ingurura, ez ziran indioak kolonízatzaera joan; baiña, ondoren agertu ziranak, oiek bai, indioen lurraldeak menperatu arte, ez eben pakerik eduki. Frantzia eta Ingalterra izan ziran kolonizatzaileak eta lurraren nagusi egin ziranean, orduan, itsasoan agertu eben euren nagusitasuna.

Errezkero, euskaldunentzat eragozpenak legorrez eta itxasoz; bai kastor-narru merkataritzan, bai kaí berezietan eta baíta arrantzaz be. Euskaldunek burrukarí eldu eutsoen. Barku-lapurketa asi zan emendik Terranobara... Baiña, azkenik, euskaldunak etxera. Utrech'eko Ituna 1713'garren urtekoa da eta Itun orretan ítxí ziran euskaldunentzat Terranoba'rako bide guztiak.

Ingalterra'k, lurraren nagusí gerta ondoren, ítxasoko bale-aberastasunak be beretzat naí. Eta, orduan, bale-ontziak presta alogeratu zítun, arpoilariak eta patrioiak. Barku bakoítzeko dozena erdí bat. Orrenbeste egín eben holandes eta danesak. Alde bategaz, euskaldunak banan banan íoazen Terranoba'ra eta onek danok Konpañi aundietan. Galtzaille, euskalduna. Konpetentzia alde guztíetatik.

Ortik bakarrik ez ziran oker danak sortu: Felipe II'garrenak bere ítxas-burruketarako bale-ontziak eramaten ebazan eta zorí txarreko La Armada Invencible aretan be, saíl osoa galdu zan.

Gu argaltzen eta etsaiak indartzen. XVI eta XVII'garren gízaldiak pasa orduko porrot eginda giñan eta Utrech'ek eman euskun puntilla.

### Irabaziak banatzen

Cansó'tik urten eta, íllebete kresaletan ibillí-ta, eldu

dira Bilbo'ko Arenal'era. Ontziaren nagusia, Landaverde jauna, agertu da moíllan, baita armadorea be. Kargarí begiratu bat emon deutsoe. 1195 barrika datoz bodegetan estibatuta.

Banaketaren agírí bat badaukagu. Onela egín zan: Irutik bat trípulazioari, 398 barrika; laurden bat ontziaren nagusíari, 298 t'erdi; galditzen zana armadoreari, 497 t'erdi. Gero, beste 12 emon eutsen: guztira, 509 t'erdí.

Irutik bat tripulazioari, izan da betí itsasoko legea.

Ibillaldiko 'soldata' berdiña izan zan 75 gizonentzat: 5 barrika. Barrika bakoitzak 200 kilo izanik, orra 1000 kílo koípe: Ibillaldiaren alogera. Ortík aurrera, abantailak dira.

Abantailak nagusi eta armadorearen bizkarretik doaz. Izan liteke nagusia eta armadorea, bíak, persona bakarra izalea. Aldi batzuetan kapitana izan ei zan nagusi eta armadorea. San Nicolas ontzian irurak dira desberdiñak.

Nagusiak, bere barriketát'k banatu eutsen, berak aukeratutako gizonéi:

Kapitanarí, 10 barrika = 2.000 kilo koípe.

Kontramaíxuari, 5 barríka = 1.000 kilo koípe.

Arotzari, 3 I/3 barríka = 660 kilo.

Zaindariarí, 2 I/2 barríka = 500 kilo.

Kalafateari, 2 1/2 barríka = 500 kilo.

Kañoi-zaindariarí, 2 1/2 barríka = 500 kilo.

Danetara 25 eta 5/6 barríka = 5.160 kilo koípe banatutakoak.

Beretzaiko, 272 2/3 barríka = 54.400 kilo.

Armadoreak, trípulazioari banatutakoak:

Kapitanari, 15 barríka = 3.000 kilo.

Píllotuari, 27 I/2 barríka = 5.500 kilo.

Auen ondoren geien jaso ebenak, arpoilariak ziran:

Laurek, 10 bakoítzeko = 2.000 kílo bakoítzari.

Beste batek, 5 barríka = 1.000 kilo.

Eta azkenak, 2 1/2 = 500 kilo.

Danen artean zabaldu ebazanak 113 I/3 barríka izan ziran = 23.600 kilo koípe. Beretzako, 396 2/3 barríka = 59.332 kilo.

Bizarrik ez dabe aitaten; baña balio aundikoak ziran eta San Nicolas'ek 480 kintal ekarriko ebezan eta 36 bale arrapatu. Esan dogu itxasoko oitura zer izan dan: irutatik bat arrantzaleentzat eta besteak, besteentzat. Orregaít'k edo, ez eben ezer aitatu.

Ez dakigu tripulaziño onen adiña; beste batena, ostera, bai: Doniane Loitzun'eko Le St. Esprit bale-ontziaren rola dogu eta bertan agertzen da nungoak eta zer adíñekoak diran: batek ditu 52 urte, 40-50'ra daude 7 lagun; 31-40'ra 15; 21-30'ra 18; 13-20 17.

40 urtetik beerakoak % 73 dira. 30 urtetik beera-koak, % 50. Gaztedia dabil Terranoba bidean. Alan konbeni be.

## Zenbat ontzi

Euskaldunak bale-arrantzara joan ziran, batez be, Terranoba'ra. An topa ebezan bakallauak itxaso estali. Eta bakallautan asi. Barku aundiak baletarako, txiki-  
nak bakallautarako.

Zenbat danetara?

1621'garren urtean asko zirala esaten dausku Lope de Isasti idazleak. Baña, asko zenbat da? Oihenart'ek, barriz, bakallau eta baletik aberastasun aundiak jaso ebezela diño 1638'garrenean. Baña, aundiak zenbat dira?

Xeetasunaren billa goaz.

1580'ean, urte onak oraíndik Terranoba'ko arrantzarako, Tomé Cano jaunak dionez "Bizkaia'tik 200 ontzi baño geiago joaten ziran Terranoba ra; gizonak, berriz, 10.000'tik gora". Bizkaia orain baño izen zabalagoa zan. Euskalerria'ren ordeztatu bear.

1600'garren urteko bi berri dauzkagu liburuetan: Pasaí eta Donostían 20 barku egozala, 2.000 arrantzalegaz, Terranoba'rako eta Doniane Loitzunen, 60 ontzi 3.000 gizonegaz. Proporzioa ez da berdiña: Lenengoan, 100 gizon ontzi bakoitzeko; bigarrenean, 50, erdia. Tomé Cano'k esan deusku 200 ontzietan 10.000 gizon egozala: 50 gizaseme ontzi bakoitzean. Neurri ori ondo dago; baña, Donosti'ko neurriak (20 barku eta 2.000 gizon) egizkoak izateko, baldintza onek bete bear dabez: barku oso aundiak izatea edo oietako ontzi batzuek itxaslapurak izatea. Lapurrek 250 gizaseme erueten ebezan. Dana dala, iru kaí onetan, 80 ontzi eta 5.000 arrantzale.

Zenbat ote ziran beste kaietakoak?

Orixe ez dakigu, baña beste berri au baí: Mutriku'ko Udalak ez ebalu batzarrik egin urte orretan, 1600, bertako arrantzaleak Terranoba n egozalako. Ta Mutriku'ren antzera ibilliko ziran beste portuetan be.

1625'ean, Ilbeltzaren 15'ean, Pasaí'ko portuan 41 ontzi egozan Terranoba'rako prest. Esaten digu beste berri batek. 295 txalupa, 1.475 gizaseme eta 3.680 sagardo-barrika barruan.

1626'ean Getaria eta Mutriku'ko maríñelek ez dute Erregearen armadan enrolatu nai, guztiak Terranoban dabiltzalako.

Ikusten dogunez, millaka gizon dabil Euskalerrí'tik Terranoba'rako bidean; baña, tamalez, ez dabilta danak barku euskaldunetan. Asko dabilta ingles, holandes, danes eta abarreko ontzietan, bale-arrantza etsai-  
eriakusten. Eta ortik sortuko da kompetentzi itzala, beste alde batuzetik bezala. Oien ondorena euskaldun arrantzaren ondamendia izan zan.

## Utrech'ko Ituna, 1713

Carlos II, Espáñiako erregea izendatzea zala-ta, gerra sortu zan Espáñi eta Frantziak Ingalterra eta Holanda'ren aurka. Auek biak irabazi eta Terranoba'ko lurren jabe egin ondoren, ango itsasoetatik bota ebezan egoaldeko euskaldunak betirako. Agur balea, agur bakallaua eta agur oien ondorengo aberastasunak.

Ona zer diñon Dr. Camino idazleak bere `Historia de San Sebastián' liburuan:

"... qué utilidades no redundarían de ello al comercio de la costa de Guipúzcoa que desde que se abandonó la pesca del bacalao y la ballena, se hallan en lamentable estado, disminuída su población, abatidos sus moradores, arruinados sus edificios, causando desconsuelo... sin que se vean en sus puertos sino algunas lanchas de pobres pescadores...".

## PYSBE

Utrech'ko Itunetik 214 urte pasa ondoren, Donostia'n, Terranobabideak iriki ziran berriro 1927'an. PYSBE-konpañiak bí barku antolatu ebazan bakallautara; 1600 tonelada bakoitzak eta saredunak. Terranoba n garai batean onenak izan arren, orain ez ekien ez arrantzan, ez bakallaua prestaketan. Bretoiñak ekarri ebezen 42 arrantzale barku bakoitzeko. Beste 22 lagunak bertakoak ziran. Barkuen izenak: Alfonso XIII eta Euskalerrria. Nere aita zan Alfonso XIII'renaren kapitáña.

Lau kanpañá egin ebezan bí urteen barruan. 400 toneladatik ez ziran pasa kanpañá bakoitzeko. Kapitane esan eutsen nagusie botateko etxera bretoiñok, bestela Konpañiaren gaiñera ondamendia etorriko zala-ta.

Bota ebezan. Arrantzale berriak bear ziran. Nere aita Lazkano'n bízi zalako, lekeitiarra izan arren, bere ingurutik asi zan Terranoba'rako arrantzale billa eta topa be bai: Lazkano, Ataun, Olaberria, Zaldibi, Etxarri-Aranaz eta abarretan. Geienak, Gipuzkoa-goierriko base-  
rriarrak. 200 urte ondoren, bakallautan Terranoba'ra joango ziran arrantzaleak, geienak legorrekoak.

Gauza baten aldaketa gertatu zan: Gure aurrekoak bakallaua síku ekarten eben; bretoiñek, barriz, freskotan gatza emonda. Gero Doniane Pasaía'ko fatorian legortu. Andik urte batzuetara fatori berria eraiki zuten Ferrol'en.

17 barkutaraíño eldu zan, 1088 arrantzaleekin; baña, 1973'garren urtean, bere lenengo kapitáñaren erioztaren 7'garren urte-mugan, porrot egin eban. Bere azitik sortu ziran PEBSA, COPIBA eta ondorengo beste bakallau-elkarteak, ilda egoan Terranoba'rako zaletasuna berbítuz.

Baíña, betiko leloa, berriro eragozpenak Terranoba'ra bidean Kanpada aldetik... Historian zear, gauza berri gutxi dagoz. "Zaarrak berri, gaztien amorragarri".

ANES ARRINDA. Deba'n-XI-1990.

## IRUNA? IRUNEA? ZORIONEZ, IRUNA! (1)

Orrela erabaki ere du Napparroa'ko Jaurlaritzak. Erabaki bikaña eta zearo zuzena. Ori, IRUÑA, izan bait da beti gure Uri Nagusiaren izena. Izen ederra benetan. Uriá bera bezin ederra: IRUÑA,

Orrela esan diote *beti* euskaldun guztiek beren euskalki *guztietan*. Orrela, idazle guztiek ere *beti* beren liburu *guztietan*, "el batua" izeneko ízketa-modu traketis ori zoritxarrez agertu zítzaigun arte.

ETA'ren altzoan sortu zen "el batua" 1960'garren urtean. Eta elbatuazaleek así zíren Iruña'ri "Iruñea" deitzen eta izen baldar ori "Iruinea" ídazten. Zergatik eta zertarako? Ez dakit. ETA'k bai al du, ezertarako, arrazoi baten bearrik, Euskalerriko arazo guztietan iskamilla sortuz "iraultzarako gíroa prestatzea" izan ezik?

Gauzak orrela, goratzarre betea eta zorionik beroenak merezi dítu Napparroa'ko Jaurlaritzak; eta gaítzespenik sendoenak Jaurlaritzaren aurka ateratzera ausartu den Amatiño idazle el-batuazaleak.

Amatiño'k, aitortzen du "IRUÑA esan dutela beti *baskoiek* eta Iruña izan dela edestia-zear, latíñez ere, beti erabilli den izen bakarra". Altaguztiz —o! el-batuazaleen logíka—, gaízki egin duela Napparroa'ko Jaurlaritzak, dío, 1.º, Iruña'ren izen jatorra Iruñea omen delako, eta, 2'n, ori dokumentuetan oso-osoan oñarriturik omen dagoelako.

Ori, ordea, gezurra da. Bi puntu oiek dire, oso-osoan, gezurrezkoak.

Lenengo puntua: Iruña'ren jatorrizko izena Iruñea dela egiztatzeko, "Iruñean" eta ez "Iruñan"; "Iruñeko" eta ez "Iruñako"; "Iruñera" eta ez "Iruñara" esaten dutela napparrek, díosku Amatiño'k.

To! Napparrek eta sortaldeko euskaldun guztiek, Gipuzkoa ber-beretik asita. Ez ote daki Amatiño'k izki edo letra gogor baten atzeko "A" orri, ablatibo-eran, "E" eufoníku edo goxagarri bat aurre-ipintzen diogula? Eta ízki edo letra gogorrez asten diren sufijo edo atzizken aurrean "A" orí "E" biurtzen dugula?

Orrela, naiz ítzaren izena "malkarra" izan, "malkarrean" esaten dugu; eta "malkarrera", "malkarreko", "malkarretik". Ez beñere, "malkarran", "malkarrara", "malkarrako", "malkarratik". Era berean esaten dugu "bizkarrean"; ez, "bízkarra"; "Ondarrera"; ez, "ondarrara", naiz ondarrari "ondarrea" ez baiña "ondarra" esan, eta bizkarrari, "bizkarrea" ez baiña "bizkarra".

Berdin "Ñ" edo "LL" izki bustien azkeneko "A" izkiari dagokíonez ere: "mai-gañean", "maí-gañera", "mai-gañetik", esaten dugu; ez, beñere, "maigañan", "maí-gañara" edo maí-gañatik". Berdín gertatzen zaigu "urdiña", "ískamilla", "gordíña", eta ítxura ortako itz guztiekin: "iskamíllera" esaten dugu, eta "gordíneko". Altaguztiz ongítxo dakígu, nominatibo-eran, ots, bere egiazko izakeran, itz oiek "iskamillea" eta "gordíñea" eta "urdíñea" ez baiña "iskamilla" eta "gordíña" eta "urdiña" direla.

Ba, orixe ber-bera gertatzen da Iruña itzarekin ere. "Iruñean", "Iruñeko", "iruñera" esaten dugu, baiña gure Uri maitearen izena IRUÑA eta IRUÑA bakarrik dela, eta beti IRUÑA izan dela, badakígu.

Bigarren puntuari dagokíonez, dena den gezurra da gure Uri Aundiaren izena "jatorriz Iruñea dela eta ori *algo ampliamente documentado y que no tiene duda*, ots, dokumentuetan oparo oñarritutako ta zalantzarik gaubeko gauza" dala! Ez bait da dokumentu bat bakarrik ere, gure Uri Nagusiari Iruñea esaten díonik.

Nik banekian XVIII mendeko liburu batean "Iruñean inprimatua" agertzen dela. Gero, Lino Akesolo'k, mende artan orrelako beste bi edo íru líburu gefago atera zirela, esan díf. Bañan bi-iru-lau líburu oiek ez dute, eskuartearen darabílkígun arazorako deus balio. Ez luteke ezer balioko bi edo lauren orde millaka eta millaka ba'lira ere. Itz orí, "Iruñean", esakizun oietan, *ablatibo-eran bait dago!*

Galdetu díot Akesolo'ri ea berak ínon "Iruñea"rik aurkitu dun. Eta ezetz erantzun díf. Lino Akesolo'tarra, Euskerazaintzaren Lendakaria izatez gañera —eta onako auxe ez dízu íñork ukatuko— euskal-literatura ongíen ezagutzen duen gizona da. Egon gíndezke beraz zíur berak ezetz esanez gero, euskal-líteraturan ez zaiola sekulan Iruña'ri "Iruñea" deitu. IRUÑA beti! Erriak, dokumentuek, líburuek, betí, IRUÑA! Eta IRUÑA bakarrik!

LATIEGI'tar BIXENTE

(1) Idazlan au "Diario Navarra"ren "Napar-Izkuntza" deritzan Oritik jasoa da.



---

## LAU GIZA-ALDI ETXE BATEN

---



- 1.<sup>a</sup> Irakulis'tar Miren.
- 2.<sup>a</sup> Izurza'tar Bixente Etxano-Jauregi'tar Josepa.
- 3.<sup>a</sup> Izurza'tar Iñaki Gandiaga'tar Loli.
- 4.<sup>a</sup> Izurza'tar Nekane.

Albistari lez joan nintzan etxe aretara eta esan neutsen:

—Zuen bizitzako gauzatxu batzuk esan bear daustazue. Eurak isillik geratu ziran.

—Ez dozue gogoratzen zuen bizitzan jazoriko gauza oargarriren bat, esaterako biotz-ikarea emon eutzuneko edo Gernika'ko bonbaketa entzutetsua...

—Gu orduan umeak giñan eta zer esango dautzugu ba...? Gu iñoren gauzetan sartu barik, beti bearrean ibilli iara.

—Baiña zuen bizitzan, domeketan eta oraintsu zapa-tuetan, lagunakaz eta auzokoakaz olgetak eta egingo zenduezan.

—Bai, bai. Orretzaz gauza asko esan geinke.

—Ia ba, asi gaitazan.

Eurak esan eustena ipiñiko dot nik emen.

—Bixente gure aitak Gernika'ko lantegi baten egiten eban bear. Orain, jakiña, zartzaroan, zar-saridun da. Gemika'ko bonbaketaren kalteai buruz gitxi ekian, an ez zalako egon orduan, eta entzun be gauza larregi ez, gaztetxua zan-eta. Baiña bai ibilli zan Bilbo'n trintxerak

egiten Euzkadi zaintzeko, oraindiño gudari izateko adiñik ez eukan-eta. Geroago, Euzkadi menperatuta, iru urte ta erdi egon zan soldadu Burgos'en. Gero Euba'ra ezkondu zan eta orduan asi zan Gemika'n lan egiten. Kristiñau on bat izan zan eta sendi eredugarri bat sortu eban bera aita maitetsu zala. Gizon sendokote au bolari ospetsua be izan zan, Bizkaia'n eta Euskalerrri osoan. Edozein lekutan gertatzen zan bola-jokora joaten zan eta sarrita txapeldun izan be bai. Orregaitik bera bizi izan zan gelea garai-ikurrez beterik ikusten da.

Senar-emazte biak artu ebela txapeldunen bidea esan geinke. Etxano-Jauregi'tar Josepa sukaldaria zan, arrautza-opillak eta talo-opillak eta olakoak egiten ebazan ondo eta errietan izaten ziran txapelketa batzutara joaten zan, eta sarritan sariak irabazi be bai. Karta-jokan be trebetasun aundikoa da, batez be briskan. Jokolari entzutetsua da.

Lau giza-aldiko sendi onek Europa'ko lagintzadun errietako bizi-modua daroa: Ez aberats eta ez txiro. Bizkai da izan be, Europa'n dan lurralderik lantegitsuenetariko bat eta Laterri-Mailan lenengoa.

Gure aitita ta amama, kirolzaleak, etxuraz eta gorputzez Iparramerikatarren edo Europa'ko Eskandinabiarren edo Jermendarren ereduari jarraituz. Bixente'k 1'80'ko goierea dauka eta zabalkotea da, Josepa barriz goieraz 1'75'koa da eta andra sendoa. Biok bikote ezkondu zintzoa.

Ez dot esan oraindiño, euskotar guztiok egin bear dogun lez, lau giza-aldi oneitakoak guztiak euskeraz berba egiten dakiela eta euskeraz egiten dabela.

Zorionak sendi oneri eta eta zoriontasun on urte akotarako izan daitela.



---

## **INIGO JERUSALEN'EN**

Iñigorekín batera joan zan Peter Fusli, Suízako erromesaren egunkariak diñoenez, Jafa'ra dagoníllaren 21-an eldu ziran, baiña íraillaren lenengo egunerarte -10 egunerromes guztfiak ontzían legorrera jatsí barík egon bear izan eben, Jerusalem'go turkiar agintariákín erromesaldia zelan egíngo gauzak garbitu arte. Azkenean, noz edo noz, 100 turkiar armadun etorrí ziran 21 erromes zaintzeko!!!... Baiña gizon armadun areek zaintzaille baino diruzale geiago ziran eta edozeín atxakiagatik erromesaf dírua eskatzen eutseen... Jafa'n erromesak diruz alogeran astotxo batzuk artu ebezan.

"Eta gure astotxoetan Jerusalem'era giñoazela, oítu-  
ra danez, Jerusalem'era eldu baino len bi "milla" -4  
kílometro— lenago andíki zala zirudían espainiar batek  
—Díego Manes'ek— Erromes guztiai biotzez esan eus-  
kun: andík gitxira Urí Santua Jerusalem íkusten zan  
lekura elduko ginenez, gauza ona ízango zala bakotxak  
bere kontzientzia atontzea, eta orretarako ixilik joatea.  
Eta au guztfioi ondo íruditurík, bakotxa bere barruan  
bíltzen así giñan".

"Eta Jerusalem ikusten zan lekura eldu baiño apur  
bat lentxoago astoetatik jatsí giñan, kurutzearekín gurí  
ítxaroten egozan lekaídeak íkusi genduzalako".

"Eta Jerusalem Uría íkusiaz nik poz andia artu neban,  
berezkoa ez zan poza. Eta jaiera eta biotz-bero bardíña  
nabaítu neban beti Toki Santuak ikustean".

### **PALESTINA'N**

Iru aste egin ebezan erromesak Palestina'ko Lur  
Santuak íkusten. Sion mendían frantziskotarren lekai-  
detxean jan eta lo egiten eben. Iñigo'k bere autobiogra-  
fian ez deusku zeetasun askorík emoten, baiña Peter  
Fusli'ren egunkariari jarraitzen ba deusagu utsune ori  
errez bete geinke.

Jerusalem'era eldu eta urrango egunean goizean goíz  
kandela ixíotuak eskuetan, Jesus'ek Eukaristia eragí eban  
Azken Afariko aretora joan zíran, eta arratsaldean Kal-  
bario Mendiko eleizara sartzearen bakoítzak 7 dukat  
ordaíndu bear ízan zituan. Iñigo'rena nok emon ete  
eban? Jesus íl zan eleízan gau osoa egun sentirarte  
otoítzean eta irakurgai santuetan emon eben. Danak  
autortu eta Meza entzun eta jaunartu eben.

Urrango egunean arratsaldez "Kurutz Bída" edo  
"Kalbarioak" bere amalau egonaldiekín Jerusalem'go kale-  
tan zear jaiera andíz egin ebezan. Iñigo'ren bíotz-garra  
nok asmatu?

Urrango egunean Olibete mendia, Jetsemani'ko bara-  
tza eta abar ikusi ebezan, eta gero asto gainetan Jesus  
jaio zen Belen'era joan ziran...

### **BELÉN'EN**

Belen'en egun bí egin ondoren, Jesus bateatua izan  
zan Jordan ibaian erromesak gorputz osoko bustíaldí  
bat artu gura ízan eben, baiña turkiar zaintzailleak asti-  
rík ezaren atxakiaz eskuak bustitzeko aukera bakarrík  
emon eutseen.

Irugarren eguna erromesentzat baltzagoa ízan zan...  
Jordan íbaítík Jerusalem era ítzuli zíranean, San Joan  
ízeneko lekaidetxean egozala, Damasko'ko 500 jenizaro  
—gizon basatí armatuak— Jerusalem'era sartu ziran, ango  
kaleetan estualdi gorriak sortuz, eta al eben guztia lapur-  
tuz. Erromesak bízí ziran ostatua be lapurretan egíteko  
arrapatu gura ízan eben, eta barruko lekaíde eta erro-  
mesak euren bízítza larri-larri salbatu eben. Noz edo  
noz, zortzi egunen buruan, lapurreta naiko egin ondo-  
ren, jenizaro areek alde egin eben, eta Jerusalem'go  
lagunak arnasa nasaiago artzen asi ziran. Estualdí one-  
kín erromesak Nazaret, Kafarnaun eta Genesaret'eko  
itsasoa ikusteko aukera galdu eben... Baiña guri Iñigo'k  
ez deusku onangorik ezer esaten.

"Ñire erabagi sendoa Jerusalem'en betiko geratzea  
zan Tokí Santuak betí íkustatzen. Eta jaiera onez gaí-  
ñera arimaí laguntzeko erabagía artua neukan, eta one-  
tarako Goardian Abarentzat laguntza eskatzeko gomen-  
diozko eskutitzak neukazan, eta ník berari emon  
neutsezan, baita Lur Santuan geldítzeko neukan asmoa  
be esan neutsan, baina ez bigarren zatía, au da: arímaí  
laguntzeko neukan borondatea. Au, bada, ez neutsan  
ínorí esaten..."

"Goardianak erantzun eustan ez ebala íkusten ni  
zeian an geratu níntekeen, bada, etxea aín bear gorrián  
egoan, bertako lekaimeak be ezín janarítuz, eta onega-  
tík lekaíde batzuk erromesekin Europa'ra bíaltzeko era-  
bagia artua zeukala".

"Nik erantzun neutsan ez nebala etxe aretako bes-  
terik ezer gura nozean beín autortzera etorten ba'nintz  
níre autortza entzutea baino. Orduan Goardianak esan  
eustan, ola ba'zan nik gura nebana egín zítekeela, baí-  
ña Belen'en egoan Probíntzía Aba etorri arte ítxaroteko".

"Eta erromesak Europa'ra itzulí bear eben aurreko  
egunean Probíntzialaren eta Goardianaren izenean nírí  
deítzera etorrí ziran, eta Probíntzialak berba gozoz esan  
eustan, Toki Santuetan geratzeko ník neukan asmo  
onaren barria jakín ebala, eta gaí oní buruz ondo pen-  
tsatu ebala, eta beste erromesekin gertatu zana íkusírík  
ni an geratzea ez zala egoki, uste ebala. Bada, beste  
askok be nire gogo ori euki ebela, eta alako bat gero  
preso artua izan zala, eta bestea ílla, eta fraileak gero  
presoak díruz askatzeko egin bearrean geratzen zírala,

eta orregatik ni urrengo egunean erromesakin joateko prestatu bear nebaka".

## JERUSALEN'EN BIZI GURA

"Probintzial Abari erantzun neutsan, nik Jerusale-  
n'en bizitzeko erabagia oso sendo artua neukala, eta  
ezergatik be ez nebala gogo on bete barik itziko. Onela  
gogo onez adierazi gura neutsan, pekatupean beartzen  
ez ba'ninduen, beintzat, ez nebala edozelango bildu-  
rez neure erabagia bete bank itziko".

"Probintzialak erantzun eustan Erromako Aita San-  
tuarengandik aginpidea artua eukala, berak uste ebana  
andik bialtzeko, eta berak nai ebana bertan izteko, eta  
agindua egin gura ez ebenak eskomunika al izateko,  
eta nire gai onetan, ez nebala nik an geratu bear eraba-  
giten ebala".

"Eta Probintzialak eskomunikatu al izateko berak  
zituan "buldak" erakutsi gura eustazanean, nik ez neba-  
zala ikusi bearrik esan neutsan, bada, nik jaun agurga-  
ni arei sinisten neutsala, eta euken aginpidez on epai-  
tzen eben ezkerok, nik euren esana beteko nebala".

## OLIAMENDIRA BARRIZ

"Eta urten baiño len barriro be Oliamendi ikusteko  
gogo bizia etorri jatan. Oliamendian arri bat dago, eta  
andik igon zan gure Jauna zerura, eta orain aren oia-  
tako ezaugarriak harrian josita ikusten dira... Eta alan,  
iñori ezer esan bank eta zaintzaillerik artu barik —gidari  
turki-arrik artu bank dabizanak arrisku andia dabe-  
besteengandik ixillean aide egin neban, eta ango elei-  
zainak ez eusten sartzen utzi gura, eta idatz-zorroko  
laban bat emon neutsen. Eta nire otoitza jainera andiz  
egin ondoren, Betfage'ra joateko gogoa etorri jatan, eta  
an nengoela gogoratu jatan ez nebala ondo begiratu  
Oliamendian zein aldetara begira egoan eskumaldeko  
oiña eta zein aldetara ezkenekoa, eta barriz be ara  
itzulirik eleizainai sartzen izteko artaziak emon neutse-  
zala, uste dot".

"Monastegian ni gidari barik urten nintzala jakin  
zanean, fraileak ni aurkitzeko aleginak egin ebezan, eta  
onela ni Olibeteko menditik bera nentorrela monaste-  
giko morroi siriar batekin aurkitu nintzan, eta onek  
makilla andi bategaz, asarre bizi itxuran, ni joteko kiñuak  
egiten ebezan. Eta nigana eldurik besotik artu ninduen,  
eta nik gogorrik egin barik ni eroaten itzi neutsan,  
baina gizontxa arek bein be ez ninduen askatu".

"Eta morroi arek elduta bidean noiala gure Jauna-  
gandik pozaldi andi bat nabaitu neban, eta nire gainean  
Kristo ikusten nebala iruditen jatan. Eta pozaldi onek  
monastegira eldu arte iraun eustan. Eta urrengo egu-  
nean Jerusalem'dik urten gainan".

## PALESTINA'TIK ITALIA'RA

Urrengo egunean —iraillak 23— erromesak asto gai-  
ñetan ixilka eta gaez jenizaroen bildurrez, Jafa'ko kai  
aldera abiatu ziran, baina bidean Ramleh erriko Emir  
gubernariak sei egunez gosez eta egarriz lotuta euki  
zituan erromes bakoitzak "dukat" bat eta soiñeko bat  
ordaindu arte. Azken batean, zelan edo alan, Jafa'ko  
kaira eldu ziran, eta an zaintzaille turkiarrari azken  
agurra egin eutseen, baiña ez aurretik "dukat" mordo  
bat ordaindu bank.

Erromesen ontzia urriaren 3-an itsasoratu zan, bai-  
ña oraindiño be erromesen nekeak ez iran amaitu.  
Erromesak Lur Santuetan otoitzean biotz berok jar-  
du ten eben bitartean, ontziko mariñelak egun alaiak igaro  
ebezan erromesen janari eta batez be edariak eskerrak...  
Gero itsaso zabalean egozala erromesak biderako jana-  
riak eta edariak falta zirala konturatu ziran... Eta gaine-  
ra aizearen faltaz ontziak ez eban aurrera andirik egi-  
ten... Itsas erdian egarritu ziran eta ontziko nagusiak  
egarria nolabait kentzeko ur ustela ardao garratzaz nas-  
tuta emoten eutsen edateko. Askok osasuna galdu eben  
eta holandar erromes bat il zan, eta itsasora bota eben.  
Aizeak joteari emon eutsanean, nekēa neke gain etor-  
teko, ontziko nagusiak morkorturik itsas bidea galdu  
eban, eta Txipre'ko ugarteke Larkana edo Salinas kaiara  
eltzeko, lau edo bost egunen ordez, amairu egun bear  
izan ebezan... Eta gainera "La Negrona" itsasontzia  
amar egun aurretik joana zala, jakin eban Inigo'k... An  
eukan Loiolak Italia'ra joateko tokia ordainduta, eta  
orain zelan Benezia'ra itzuli?


## TXIPRE'KO UGARTEAN

"Txipe'ra eldu gainean beste enomesak ango ontzi  
batzuetan banatu ziran. Kaiari iru edo lau ontzi egozan  
Benezia'rakoak. Bat turkiarrena zan, bestea ontzi txiki  
bat, eta irugarrena ontzi aberats eta altsua, Benezia'ko  
gizon aberats batena .

"Ontzi onetako patrioiari enomes batzuk ni boron-  
datez eroateko eskatu eutsoen, baiña arek nik dirurik  
ez neukala jakin ebanean, ezetz esan eban, nire aide  
goralpenak esanez eskatu arren be... Patrioiak erantzun  
eutsen, ni alako santua ba'nintz Santiagoren antzera ur  
gainean ibiliz itsasoa igaroteko... Eta eskabide on egin  
eben eurak ontzi txikiako patrioiari ni eroatea eskatu  
eutsoen, eta oso errez lortu eben".

"Goiz batean, aizea aldeko egoela-ta, iru ontziak  
itsasoratu ziran... Baiña arratsaldean ekaitza etoni jakun  
gainera, eta ontziak bata bestearengandik banatu ziran,  
eta ontzi nagusia Txipre'ko ugartearen bazterra jota  
galdu egin zan, jendea bakanik urten zan onik. Turki-  
nen ontzia ontziko guztiekin galdu zan. Gure ontzi  
txikiak, neke andiak igaro arren, azkenean Italia'ko Puglia  
lurraldean kaia artu eban".

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gaí osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

# 1A

**Bilbao Bizkaia Kutxa**